

Behin-behineko datuen arabera, I+G gastua %0,3 murriztu zen Euskal AEn 2011n

Administrazio publikoan eta Goi mailako irakaskuntzan gehitu egin zen I+G gastua, eta murriztu enpresaren sektorean

2011n, Ikerkuntza zientifiko eta Garapen teknologikoko (I+G) jardueren gastua %0,3 murriztu zen Euskal AEn, Eustaten behin-behineko datuen arabera

I+G gastu-zifra hauen oinarrian egikaritze-sektoreen jokaera ezberdinak daude.

Sektore nagusian, Enpresan, barne-gastua %1,4 murriztu zen eta I+G jardueretarako langileak %0,3.

Goi mailako irakaskuntzan I+G gastua %2,4 hazi zen eta %5,1 langile kopurua.

Administrazio publikoan I+G gastua %3 hazi zen eta langileak %15.

Euskal AEko I+G dedikazio osoko baliokidetzako langileak %1,8 gehitu ziren.

Ohar metodologikoa: Eustatek **Datu-aurrerapena** dakar, 2011ko I+G gastuen eta langileen bilakaerari buruzkoa. Aintzat hartu dira aurreko urtean gastu guztiaren %87,8 gauzatu zuten enpresa, unibertsitate eta erakundeak. Aurrerapena ekainean, eta behin-betiko datuak aurtengo azaroan.

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Pilar Vázquez Sancho

Tlf: +34-945-01 75 46 Fax: +34-945-01 75 01

Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistikari buruzko datu bankua